


BAS

ZEREMONIA



2021

APIRILAREN 27tik MAIATZAREN 1era / DEL 27 DE ABRIL AL 1 DE MAYO
GIZAKUNDE ELIZA / IGLESIA DE LA ENCARNACIÓN
19:00h

Bilbao

BAS, Bilbao Arte Sacro 2021
Iglesia De la Encarnación 19:00

apirilak 27 abril

Qvinta Essença

“In Festo Sanctae Mariae Magdalenae”

María Madalenaren inguruko ospakizun bat Errenazimentuko Espainian
Una celebración en torno a María Magdalena en la España del Renacimiento

apirilak 28 abril

Coral de Cámara de Pamplona/Iruñeko Ganbara Abesbatza

David Gálvez Pintado, zuzendaritza/dirección

“Zer musika zerutiarra!”/“¡Qué música divina!”

Orreagatik Pueblara / De Roncesvalles a Puebla

apirilak 29 abril

Accademia del Piacere

Fahmi Alqhai, zango-biola eta zuzendaritza/viola de gamba y dirección

“Ars Melancholiae”

John Dowland laute-jolearen lanak / obras del laudista John Dowland

apirilak 30 abril

Le Poème Harmonique

Vincent Dumestre, tiorba eta zuzendaritza/tiorba y dirección

“Leçons de Ténèbres”

Obras de François Couperin, Gabriel Nivers, Louis-Nicolas Clérembault-en lanak

maiatzak 1 mayo

De Caelis

Laurence Brisset, ahotsa eta zuzendaritza/voz y dirección

“Comme l’aurore se lève”

Epopeia mistiko bat Ekialdeko eta Mendebaldeko emakumeen ahotsen bidez
Una epopeya mística a través de las voces de mujeres de Oriente y Occidente

BAS

ZEREMONIA

apirilak 27 de abril – 19:00

QVINTA ESSENÇIA

“In festo Sanctae Mariae Magdalenae”

Èlia Casanova, sopranoa
Olalla Alemán, sopranoa
Hugo Bolívar, altoa
Albert Riera, tenorra
Oriol Mallart, baritonoa
Pablo Acosta, baxua

<i>Motete Maria Magdalene</i>	Francisco Guerrero
<i>Missa Maria Magdalene</i>	Alonso Lobo
<i>Kyrie</i>	
<i>Gloria</i>	
Mulier quae erat in civitatem peccatrix	Alonso de Tejada
Lágrimas de mi consuelo	Antonio Cebrián
Missa Maria Magdalene	Alonso Lobo
Credo	
Ave Maria	Francisco Guerrero
Lágrimas de mi consuelo	Juan Vásquez
Laudemus Deum nostrum	Juan Esquivel
Ave Virgo sanctissima	Francisco Guerrero
Missa Maria Magdalene	Alonso Lobo
Sanctus	
Benedictus	
Agnus Dei	
Hermosissima Maria	Juan Vásquez

EGITARAUARI BURUZKO OHARRAK

Maria Madalenak, kristautasuneko figura garrantzitsu eta polemikoak, balio berria hartu zuen ikonografikoki nahiz musikalki Espainian Trentoko Kontzilioaren ostean. Nahiz eta Madalenaren inguruko eztabaida doktrinala berriz piztu zen XVI. mendean Lefèvre d'Estaples-en itunarekin, non ukatu egiten baitzen pertsonaia historiko hura existitu zenik, figura horren inguruko kritika humanista eta aurre-erreformistak ez zuen batere gutxitu haren alderako jaidura artean eta musikan, ez Espainian eta ez penintsulatik kanpo, alderantziz baizik. Eta hala, Errenazimenduko artistek ugaritu egin zituzten emakume eder damutuaren irudiak, kontenplazio, maitasun eta estasizko bizitzaren eredu. Horren erakusgarri, Herbehereetan zernahi artelan egin zen Maria Madalenari buruz, eta musika arloan erreferentziatzko lan bat konposatu zen, zeinetan gorpuztu baitzen haren gurtzari eman zitzaion bultzada berria: Nicolas Champion-en *Maria Madalena Meza*. Era berean, Kontra-erreformaren garaiko Espainian arte piktoriko eta musikalaren loraldia gertatu zen Erreforma garaiko ikonoklasiarekiko erreakzio gisa. Eta nahiz eta Trentoko Kontzilioak ezarritako arau eta debekuak zorrotzak izan, Maria Madalenaren kasuan neurri horiek onuragarriak izan ziren arte piktorikoarentzat eta Madalenarenganako jaidurarako. Horren froga dira Madalenari buruz idatzi ziren motete ugariak eta, batez ere, gai horri buruz idatzi zen obra nagusia, Alonso Loboren *Missa Magdalene*.

QVINTA ESSENÇIA

Qvinta Essença Espainiako Errenazimenduko polifoniaren interpretazioan murgiltzen da alde batera utzirik ortodoxiaren bidea. Bere emanaldietan nabarmena da detaile eta koloreen oparotasuna, elkarrizketa bat ehunduz, zeinetan lau ahotsetako bakoitzak bere tokia aurkitzen duen gauza guztien erdigunean kokatzeko testuaren eta musikaren adierazpena.

Une honetan hainbat motatako egitarauak lantzen dituzte, denak ere XVI, XVII eta XVIII. mendeetako konpositore eta estilo garrantzitsuenen erakusgarriak, hasi Espainiako Errenazimenduko musikatik, jarraitu madrigalen idazle italiar handietatik eta Johann Sebastian Bachenganaino iritsiz.

BAS

ZEREMONIA

Apirilak 28 de abril – 19:00

CORAL DE CÁMARA DE PAMPLONA / IRUÑEKO GANBARA ABESBATZA

David Gálvez Pintado, organoa eta zuzendaritza

“Zer musika zerutiarra”

Orreagatik Pueblara. XVIII. mendeko Nafarroako Ondare Musikala

Iruñeko Ganbara Abesbatzako bakarlariak

Marta Ramírez García-Mina, 1. biolina

Olga Montoya, 2. biolina

Jesús Fernández Baena, tiorba

Sergio Barcellona, zango-biola

Marc Moragues, 1. tronpa

Aritz García de Albéniz, 1. tronpa

Veni Sancte Spiritu

Qué música divina

Yo no lo alcanzo

Alma Redemptoris Mater

¿Quién es esta Paloma?

¿Qué hace desnudo en la Cruz?

Cuando el mundo amenazado

*Villancico con violines y trompas, a 6,
a nuestra señora del Milagro*

Benito de Navarra

José de Cáseda

Andrés de Escaregui

Simón de Araya

Andrés de Escaregui

Andrés de Escaregui

Fernando Acuña

EGITARAUARI BURUZKO OHARRAK

Julio Caro Barojaren “*La Hora Navarra del XVIII: Personas, familias, negocios e ideas*” saiakera-liburuak inspiratuta eta Javier Marín eta María Gembero musikologoaren atariko ikerketetan oinarriturik osatzen da proposamen hau. Bidaia bat, funtsean –joan-etorrikoa batzuetan eta itzulerarik gabea besteetan– Espainiaren eta bere kolonien arteko aldebiko harremanek edo beharrian profesionalek bultzatuta Amerikara emigratu zuten musikari eta musikena. Hortaz, han, hemen nahiz bietan iraun duten musikaz ari gara. Asmo eta argudio horrekin, Nafarroa-Amerika ibilbidean jarriko dugu fokua, eta Nafarroa Beheretik abiatu Pirinioak zeharkatuko ditugu Iruñea-Tutera ardatzean behera, eta Cadizen edo Lisboan itsasoratuko gara Mexikora, han gelditzeko edo/eta itzultzeko. Musikariek edo partiturek eginiko bidaiak izango dira, partiturek ere bidaiatu zutelako, bai orijinalek eta bai kopiek, kapera-maisu, kantari edo instrumentista izangaien besapean gorderik, bete gabeko eta hainbestetan zapuztutako ametsen giltzak iduri. Hala, José de Cáseda, Simón de Araya y Andía, Andrés Escaregui eta Fernando Acuñaeren obrak entzungo ditugu, batzuk lehen aldiz, mendetako lozorrotik aterata.

IRUÑEKO GANBARA ABESBATZA

1946an sortu zenetik, Iruñeko Ganbara Abesbatza bere garaiko konpositoreekin egon da lotuta, eta erabaki horrek markatu du bere historia. Horietako askok harreman estua izan dute, eta dute, taldearekin, zeinak musika-ondare nazionalaren parte diren anitz obra enkargatu, estreinatu edo/eta zabaldu dituen. Konpositore horien artean daude, besteak beste, Remacha, Dúo Vital, Bacarisse, Balada, Marco, González Acilu, Teresa Catalán, Koldo Pastor, Sauguet, Joseph de Canteloube, Paul Arma, Eduardo Grau, Bautista, Stravinsky, Bartók edo Villalobos.

Horregatik, eta abangoardiako musika Nafarroara ekartzeko egin duen lanagatik, *Kulturaren Vianako Printzea Saria* jaso zuen 2018an, eta baita ere *Laneko Merituaren Urrezko Domina*, *Meritu Zibilaren Ordenaren Enkomienda* eta *Alfontso X.a Jakitunaren Ordenaren Enkomienda*. Gaur egun abesbatzak presentzia eta sona handia dauka Estatuan eta nazioartean, mundu osoko auditorio, antzoki eta eszenatoki handietan, eta bere garaiko artista onenekin lan egiten du.

DAVID GÁLVEZ PINTADO organoa eta zuzendaria

Valentzian jaioa 1974an, bertan egin zituen goi-mailako solfeo, piano, abesbatza zuzendaritza eta konposizio ikasketak Matilde Salvador, Gabriel Casero eta, besteak beste, Eduardo Cifrerekin. Gero, Budapesteko Liszt Ferenc Zeneakadémia zentrorra joan zen abesbatzen zuzendaritza, orkestra zuzendaritza eta konposizio espezialitateetan diplomatzeko Éva Kollár, Judit Hajtyány, István Parkai, Gyula Fekete eta Tamás Gál-ekin. Irabazi dituen sarien artean aipagarriak dira Hungariako Musikarien Foro Nazionalaren Saria 2001ean, Hungariako Musika Garaikidearen Interpretazio Onenagatik; lehen saria eta lehen sariaren accesita “Premis Cataluña de Composició Coral” txapelketan 2006an, eta INAEM/Kultura Ministerioaren aitortza artistikoa konpositore gisa 2007an. Horrez gain, hainbat lehen sari irabazi ditu Cor de Cambra Amalthea abesbatzaren zuzendari bezala.

BAS

ZEREMONIA

Apirilak 29 de abril – 19:00

ACCADEMIA DEL PIACERE

Fahmi Alqhai, zango-biola eta zuzendaritza
“Ars Melancholiae”

Alena Dantcheva, sopranoa
Johanna Rose, zango-biola, tenorra
Christoph Urbanetz, zango-biola, baxua
Teodoro Baù, zango-biola, baxua
Rami Alqhai, biolonea
Miguel Rincón, lautea
Pedro Estevan, perkusioa

<i>Lachrimae Antiquae</i>	John Dowland
<i>Fair Britain Isle</i>	William Byrd
<i>The King of Denmark's Galliard</i>	John Dowland
<i>Lachrimae Antiquae Novae</i>	John Dowland
<i>Ye sacred muses</i>	William Byrd
<i>Captaine Piper his Galliard</i>	John Dowland
<i>Out of the Orient Crystal skies</i>	William Byrd
<i>Lachrimae Gementes</i>	John Dowland
<i>Lachrimae Tristes</i>	
<i>M. Nicho. Gryffith his Galliard</i>	
<i>Lachrimae Coactae</i>	John Dowland
<i>In Angel's Weed</i>	William Byrd
<i>Lachrimae Amantis</i>	John Dowland
<i>M. Giles Hoby his Galliard</i>	
<i>Lachrimae Verae</i>	John Dowland
<i>I thought that Love</i>	William Byrd
<i>Now, o now, I Needs Must Part</i>	John Dowland

EGITARAUARI BURUZKO OHARRAK

Malenkoniaren paradigma hezur-haragiztatua, John Dowland laute-joleak bere *Flow my tears (Malko-jarioa)* kantuan gauzatu zuen bere maisulan eredu; kantu horretan zazpi bariazio desberdinetan garatzen du iragan urruneneko beheranzko tetrakordioaren melodia, erroak Grezia klasikoraino luzatzen dituena. *Lachrimae, or seven tears.*

ACCADEMIA DEL PIACERE FAHMI ALQHAI

Bere proiektu berritzaile ausartekin eta bere zuzendariaren nortasun artistiko indartsuari esker, Accademia del Piacere Espainiako antzinako musikaren abangoardiako taldea eta Europako puntakoenetako bat izatera iritsi da, musika historikoaz daukan kontzeptzio berritua dela medio.

Bere grabazioetan, Accademia del Piacere taldeak ñabardura berriak azaleratu ditu musika historikoaren oinarriko errepertorioan, hala nola Italiako *Seicento*, Errenazimenduko Espainiako musikan (*Rediscovering Spain*) edo Barroko hispanoko musika eszenikoan (Juan Hidalgori eskainitako *Cantar de Amor*). Lan horiei esker hainbat sari jaso ditu, euren artean Choc de Classica (Frantzia), Prelude Award (Holanda) eta Espainiako Talde Barroko Onenaren GEMA saria 2016an. Horrez gain, Accademia-k eta Alqhai-k entzuleak harritzen dituzte historizismotik urruntzen diren lurralde artistikoak bisitatzuz; hala egiten dute Arcángel eta Rocío Márquez kantari flamenkoekin osatutako *Las idas y las vueltas* eta *Diálogos* proiektuetan, biak ere Sevillako Flamenko Biurtekoan Giraldillos sariaren irabazle izan zirenak 2012an eta 2016an.

Accademia del Piacere taldearen emanaldiak musika klasikoaren eszenatoki ospetsuetan eskaini dira.

FAHMI ALQHAI zango-biola, sopranoa & zuzendari musikala

“Fahmi Alqhai-k zango-biolarentzako lur berri eta aberatsa aurkitu du bakarkako A piacere CD paregabea”. Gramophone

Sevillan jaioa, aita siriarra eta ama palestinarra ditu. Ventura Rico eta Vittorio Ghielmi maisuekin ikasi eta Jordi Savallekin lan egin ondoren, berehala bideratu zuen bere ibilbidea *Accademia del Piacere* bere talderantz, zeinarekin mundu mailako sari garrantzitsuak jaso dituen —are musika historikoaren eremutik kanpo ere, esaterako bi Giraldillos sari Sevillako Flamenko Biurtekoan— eta emanaldiak eskaini dituen areto ezagunenetan: Oji Hall (Tokio), Konzerthaus (Viena eta Berlin), Elbphilharmonie berria (Hamburgo), Philharmonie (Kolonja), Auditorio Nacional (Madril)... Alqhai-k Publikoaren 2016ko Disko Onenaren GEMA Saria irabazi zuen (*The Bach Album*), Sevilla Hiria Domina irabazi du eta FeMÀS jaialdiko zuzendari artistikoa da.

ALENA DANTCHEVA sopranoa

Alena Dantcheva Sofian jaio zen (Bulgaria). Bere jaioterrian hasi zituen musika ikasketak eta gero Turineko Giuseppe Verdi Kontserbatorioan jarraitu zituen; 1996an harpan graduatu zen Gabriella Bosio-rekin eta 1999an kantu gregorianoan. Turinen bertan kantu ikasketa ofizialak hasi zituen Laura Bracco-rekin. “De Sono” Musika Elkartearen beka bati esker, aukera izan zuen bere teknika hobetzeko Claudia Visca-rekin (Vienan, 2003 eta 2005 artean), eta ondoren Daniel Muñozekin lan egin zuen Madrilen.

Kontzertuak ematen ditu Europa osoan, AEBetan eta Japonian, bai bakarlari gisa eta bai hainbat taldetako kide bezala, kantu gregorianotik musika garaikideraino doan errepertorio batekin eta interes berezia duelarik Errenazimenduko eta Barrokoko musiken interpretazioan.

BAS

ZEREMONIA

Apirilak 30 de abril – 19:00

LE POÈME HARMONIQUE

Vincent Dumestre, tiorba eta zuzendaritza

“Leçons de ténèbres”

Déborah Cachet, sopranoa
Anaïs Bertrand, mezzo-sopranoa
Floriane Hasler, altoa
Lucas Peres, zango-biola
Camille Delaforge, organoa eta klabezina

Antienne Zelus Domus Tuae (kantu laua)
Salmo Salvum me fac Deus (kantu laua)
Versículo Dum convenirent

Gabriel Nivers

Asteazken Santurako lehen lezioa ahots batean
Messe Solemnelle – Tierce en taille
Asteazken Santurako bigarren lezioa ahots batean
Messe Solemnelle – Cromorne en taille
Asteazken Santurako hirugarren lezioa bi ahotsetan

François Couperin

Antienne Justificieris Domine

Gabriel Nivers

Miserere hiru ahotsetan

Louis-Nicolas Clérembault

The Antiphonarum Parisiense liburuko
kantu lau paristarra

Sébastien Mabre-Cramoisy

EGITARAUARI BURUZKO OHARRAK

Barroko garaian antzoki eta kontzertu aretoak itxita egoten ziren Garizuman penitentzia bezala. Sasoi hartan konpositoreek musika liturgikoa besterik ez zuten idazten, eta seriotasun handiko eta indar adierazkor gaitzeko obrak utzi dizkigute. Garizumaren amaieran eta Pazko asteko jaien aurretik ospatzen den Aste Santuko azken hiru egunetako elizkizunetarako konposatu ziren *Ilunpeko Lezioak*. Pieza hauetako hitzak Jeremiasen Erostatetik aterata daude, eta hizpidea dute Jesusen bakardadea gurutziltzatua izan aurretik.

Potentzial dramatiko handikoak, XVII. mendeko Parisen iritsi zuten heldutasun musikala eta jendalde handiak erakarri zituzten elizetara. Garai hartako konpositore frantses onenek, hala nola Delalande, Charpentier eta Couperin-ek, *Tenebrae* hauetarako konposatu zituzten euren kantu onenak. François Couperin-ek 1713 eta 1715 artean ahots bakarlari batentzat eta ahots kontinuo batentzat idatzitako eszenatokia oso intimoa da eta emozioz eta edertasunez betetako ustekabeko momentuak sortzen ditu.

LE POÈME HARMONIQUE

Vincent Dumestrek 1998an sortua, XVII eta XVIII. mendeetako musika interpretatzen duten musikari kartsuz osatutako talde bat dugu Le Poème Harmonique. Emanaldi asko ematen ditu Frantziako eta nazioarteko aretoetan, eta bere egitarau irudimentsu bezain zailtan ezagun da errepertorio musikalarekiko hurbiltasuna, bai eta ahots nahiz instrumentuen testuren ulermen sakona.

Bere egitarauetan badira Lalande, Lully, Couperin, Clérambault, Charpentier eta beste hainbaten obra ezagunak eta ez hain ezagunak, behinola Versailles jauregiko bizitza, errutina eta zeremonien erritmoa markatu zutenak, baina baita ere barroko italiarreko piezak (Monteverdi edo Pergolesirenak) eta obra ingelesak (besteak beste Purcell eta Clarke-renak).

VINCENT DUMESTRE tiorba eta zuzendari musikala

Arteekiko duen zaletasun bereziak, estetika barrokorako daukan sormenak, esploratzaile gisa duen talentuak eta taldekako abenturak bizitzeko goseak naturalki eramane zuten XVII. eta XVIII. mendeetako errepertorioak deskubritzera eta horien neurriko talde bat sortzera. Le Poème Harmonique orkestrarekin, Vincent Dumestre Barrokoaren berpizkundeko artisaun irudimentsu eta moldakorrenetako bat dugu gaur egun; orkestrak, abesbatzak, denboraldi musikalak, lehiaketak eta jaialdiak zuzentzen ditu, bere lehen instrumentuak --soka pulsatuzkoak-- jotzen jarraitzen duen bitartean. Musika barrokoaren munduko areto garrantzitsuenek maiz gonbidatzen dute emanaldiak eskaintzera Le Poème Harmonique taldearekin batera, egitarauaren arabera lagun dituztela Aedes, Accentus edo Les Cris de Paris abesbatzak nahiz Música Eterna, Musica Florea, Arte Suonatori, Orchestre Régional de Normandie, Capella Cracoviensis edo Orkiestra Historyczna taldeak. Oso aktiboa da orobat Normandian, taldea sortu zen lurraldean alegia.

Vincent Dumestre Frantziako Arte eta Letren Ordena Nazionaleko eta Merituaren Ordena Nazionaleko zalduna da.

BAS

ZEREMONIA

Maiatzak 1 de mayo – 19:00

DE CAELIS

Laurence Brisset, ahotsa eta zuzendaritza

“Comme L’aurore se lève”

Estelle Nadau, Eugénie De Mey, Caroline Tarrit, Claire Trouilloud, Clara Pertuy, ahotsak
Sara Hamidi, ahots pertsiarra

XIV. mendeko pieza anonimoak eta inprobisazioak

O eterne Deo, antienne

[Hildegard von Bingen](#)

Paradisi porta, lat.3719, conduit

[Anonyme](#)

Kantu inprobisatua

De flore /Deus/Ave rex, Oxford Bodleian 7, motet

[Anonyme](#)

O splendidissima gemma, antienne

[Hildegard von Bingen](#)

deux chants

Doleo super te, Cambridge, Gonville and Caius coll.MS 512/543

[Anonyme](#)

Ave Miles/Ave rex, Oxford Bodeleian 7, motet

Qui odit, antienne de Sarum avec chant improvisé

[Anonyme](#)

O homo considera/ O homo/ Filie, Oxford,

New College MS 362, motet

Pastor animarum, antienne

[Hildegard von Bingen](#)

Kantu inprobisatua

Cum processit, antienne

[Hildegard von Bingen](#)

Domine celestis rex, London westminster abb.33 327, motet

[Anonyme](#)

Agnus tutti

Ianuam /Iacintus/Iacet granum, motet anonyme Oxford,
New College MS 362

Kantu inprobisatua

Humane linque/Supplicum/Deo gratias,

[Anonyme](#)

London British lib 40011B, motet

EGITARAUARI BURUZKO OHARRAK

Topaketa sinboliko honek agerian jartzen ditu bi zibilizazioen arteko loturak. Ahotsa ematen die Erdi Aroko mendebaldeko eta gaur egungo ekialdeko emakumeei, estasi eta lilurazko musika batekin.

Entzungai izango dira XIV. mendeko kantu lau eta polifonia anonimoak, Sara Hamidiren ahots paregabearekin. Hamidik *Radif*-a ikasi zuen, Irango musika klasikoaren erreperitorioa. Emakumeen ahotsa maiz isildua izan da munduan. Eta oraindik ere hala da herrialde askotan. Horren lekuko da Irango kantari, emakumeak jendaurrean agertzeko debekua urratuz erbestea aukeratu duena isiltasunaren orde. Hamidi Isfahanen jaio zen. *Radif*-a ikasi zuen, Irango musika klasikoaren erreperitorioa. *Radif*-a ahoz erakusten da, tradizioak agintzen duen bezala. Modu bakoitzaren ezaugarriak dituzten motibo melodikoak dira. Interpretreak buruz jakin behar ditu bere inprobisazioetan osagai gisa erabiltzeko. Unescok gizateriaren ondare immaterial izendatua du Irango tradizio musikal hau. Iran poesiaren herria da, inon halakorik bada. Kantariak berak aukeratzen ditu inprobisatzeko erabiliko dituen hitzak. Egitarau honetan Sara Hamidi-k Khayyâm, Haafez eta Rûmî-ren poesiak kantatuko ditu. Tradizio bietan daude xuxurlak, melismak, soinuazko arabeskoak, apaingarriak eta modalitateak. Hala, elkarri erantzun diezaioke eta elkarrekin batu, baina nahasi gabe.

DE CAELIS

Laurence Brisset-en batutapean sortua 1998an, taldea Erdi Aroko *a capella* erreperitorioaren interpretazioan espezializatuta dago. Erreperitorio ez oso ezagun honek liluraturik, taldearen interpretazio-lanak oinarritzat hartzen ditu iturriei buruzko jakintza, obretako oharrak eta haien testuingurua.

Taldeak ustekabeko topaketak sorrarazten ditu iraganeko eta gaur egungo maisuen artean. Jakinmin asezin batek bultzaturik, sorkuntza-prozesu bizi batean murgiltzen ditu antzinako obrak, agerian jarriz horrela beren modernotasuna.

Tinbre, apaingarri eta inprobisazioaren inguruan esperimendu eta ikertzeko xedez, erreperitorioa xeheki ezagutzera gonbidatzen ditu konpositoreak. Topaketetan antzinako erreperitorioa eta sorkuntzak uztartzen dituzten programak sortzen dira, bereziki diseinatuak oihartzunak sortzeko bi aro berritzaile eta sortzaileraren artean, hots, Erdi Aroaren eta orainaldiaren artean.

De Caelis taldeak espazioak esploratzen ditu: *a capella* kantuaren arteak esperientzia berezi-berezi bat eskaintzen du, antzinako tokietan nahiz leku modernoetan gorpuzturik. Iraganeko eta orainaldiko idazki horiek ahots biluzi, hauskor eta indartsu baten bitartez transkribatzea da taldearen asmoa.

SARA HAMIDI, ahots pertsiarra

Sara Hamidi Isfahanen jaio zen. *Radif*-a, Irango musika klasikoaren erreperitorioa, ikasi zuen Maédeh Tabatabaei-ren laguntzaz, zeina Irango kantuaren egungo maisu M. R. Shajarian-en ikasle izan baitzen.

Ezaguna bere talentuagatik eta ahotsaren tinbre bereziagatik, berehala bat egin zuen Isfahaneko Abesbatzarekin eta beste hainbat musikari talderekin. Zoritxarrez, Irango baldintza politiko eta erlijiosoek debekatu egiten diete emakumeei jendaurrean kantatzea bakarlari gisa. Beraz, Sara Hamidi-k, bere herrialdeko beste edozein emakume abeslariri gertatzen zaion bezala, ezin du kantatu abesbatza edo ahots-talde batetik kanpo. 2012an utzi zuen Iran eta Frantzia kokatu zen, non aske baita bere artea garatzeko, hainbat talderekin kolaboratzeko eta askatasun osoan kantatzeko. Frantziara iritsi zenetik kontzertu publiko eta pribatu ugari hartu du, hala nola Mundu Arabiarraren Institutuan, Afganistaneko Enbaxadan Emakumearen Munduko Egunaren kariatara eskainitako kontzertu batean, BBCn, RTBFn, Herbehereetan, Suedian, Espainian, Alemanian...

SARRERAK / ENTRADAS

Apirilaren 20tik aurrera / A partir del 20 de abril

- Teatro Arriaga Antzokia (txarteldegia/taquilla):
astelehena, asteartea, larunbata eta igandea / lunes, martes, sábado y domingo
11:30 -14:00 / 17:00 -19:00.
asteazkena, osteguna eta ostirala / miércoles, jueves y viernes
11:30 -14:00 / 17:00 - 20:00
- www.teatroarriaga.eus
- Kutxabanken zerbitzu anitzeko kutzazainak / Cajeros multiservicio de Kutxabank
- Kontzertua hasi baino ordu bete lehenago Gizakunde elizan, sarrerarik egonez gero.
Una hora antes del inicio del concierto en la iglesia de la Encarnación, en caso de que queden entradas